

C. Zumárraga 7,
Entrada Maestro Icíar
48006 Bilbao
t: 94 679 22 92
m. 645 005 426
info@lataller.com
www.lataller.com

JAI EGUN MARTA ZELAIÁ

Errealaren pixelak eta inpaseak

Artea exorzismo bezala. Marta Zelaiaren mundua. Hitzak ezin esan eta sinboloak ezin irudikatu errealaren inpaseak. Estetika hutsa ez du aski; fetitxearen barbarismoa ere beharrezko du. Gogora dakartza Trocadero museo zaharreko Afrikarren maskara haiek, Picassoren epifanien: "gauza magikoak ziren, norberaren aldekoak, fetitxeak, armak, espirituak, inkontzientea, emozioa: denak gauza bera dira. Ulertu nuen zergatik nintzen pintore". Marta Zelaiak ulertu zuen zergatik etxe ondoko arbola zahar zuloz josian ezkutatzen zitzaion bere izate osoa, atarian bi beso biluziak zerura altxatzen zituen osabak landatutako madariondo hartan, "Zergatik abandonatu nauzu". Adarretatik eta gorputz hutsaren barnetik trentzaz osaturiko lokarriak eseki zituen, lurreraino eroriak, aita kiribiloz eginak, haien ertzetan hariak malkoak lez zintzilik, gurasoen bi enbor jantziak mimoz luzaro laztantzen, urrunagoko enbor distantziatuagoa anaiari deika. Eta zergatik bihurtu zen lokarria zilborheste: "Ama, eten dezagun, lehen gorputzarena bezela, orain gogoaren zilbor-hestea". Eten ez, zilborhestea sokatira bihurtu zitzaion artistari, bere erraietatik irtetzen zitzaion soka gorri hura, sokatira amaiezina inpase betikoan, ez aurrera ez atzerako jokoak, finituak barnean duen infinitua. Bizitzaren arteak ikasteko sokatira zen, oinak zutik mantentzeko tirabira. Koadroaren pixel bakoitza hariz zeharkatutako lotura karratu koloretua zen, bat bestearen kontrako eta osagarri, bakoitza koadro hedatuaren baitan solte eta korapiloz atrapatua. Arrakalaz eta inpasez osaturiko puzzle amaigabea, tradizioan, euskeran, etxean, generoan, politikan, desioan oinarrituriko subjektu modernuaren inpaseak, pasaezinak eta saihetsezinak. Fetitxeak, armak, inkontzientea ditu beharrezko artistak, txarra urrunduko duen formula apotropaikoak. Hausturen zehar begiratzen ikasi du, arbola zulatuan etxea ikusi du, enbor eroria kirol bihurtu du, "irabazi" ezin den joko eta jolasean. Artista ia etnografo gisa ari da lanean, fantasia primitibistarik gabe. Aizkora zerura altxatzen du gizonak, behean ezpala dariola enborra aurkitzeko asmotan. Harrijasotzaileak mundua gora bultzatzen besterik ez daki; gorputza okertzen du, gerria aurrera bizkarra atzera, eta artistak barkatu egiten dio goratasunaren aldeko borroka zitala; Sisifo zorionsu imajinatzen du, mendian gora harkaitza bizkarrean daramala. Etxeko kirolek eta aberriak kolore berdea dute ikurrin. Besoak lurreraino makurtzen ditu segalariak, eta zapi zuria bihurtu zaio sega, lurrean itzala uzten du. Gurasoak etxean zaintzeko egunak iritsi dira. Karlosek sukaldeko mahai gainean zapi zuria pintatu du amaren eta alabaren artean, aita balkoian piperrak txirikordatzen ari den bitartean. Aizkolariak ankapean eta harrijasotzaileak bizkar gainean dute segalariari laino bihurturiko zapi zuria. Ezinezko desioaren objektu preziatua, zapi zuria. Errealaren fetitxea. Sokatira koadro zabaleko pixel brodatu bakoitza haurtzaroko puzzlera itzultzen zaio, josten irakatsi zion amaren begietara, aita atarian duen baratza. Errealaren artea. Karlosen ondorengo koadroan alaba lehioetik begira dago urrunaren melankolian. Gauza guztietan dago arrakala, hortik dator argia. Errealaren hondakinak azaldu nahi ditu artistak. Sukaldeko sua ageri da harrijasotzailearen etxe bazterrean eta segalariaren txokoan eta akerrerren ukuiluan. Artea "akabatu" ez, hasiera boteretsua garatzen du Marta Zelaiaren obran: lehenaren espektroak eta anakroniak eta ametsezko munduaren pitzadurak jaiotetxe aurreko baratza-atarian biltzen ditu eta hortxe, lorez eta berdetasunez estalita, bizitzaz transfiguratzen zaizkio.